

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Kontxita Zaldua Zabala*

*Urnieta,  
Gipuzkoa  
(1924-2019)*

Aurkibidea



## Biografia



Urnietako plazan bertan jaio zen. Ama urnietarra zuen eta aita Zubietakoa. 6 senideren artean 4.a zen bera, eta eskolan gustura ibilitakoa. Donostian ere ibili zen ikasten eta Urnietatik joan-etorrian ibili beharrean, bere izebak Bilbo plazan zuen pentsioan gelditu zen bolada batean. Jende garrantzitsu askori errekaduak egiten zizkiola du gogoan. 25 urte zituela, Urnietan bere izeba-osabek zuten tabernan hasi zen lanean, eta han ibili zen urte askoan. Gerora, altzari-denda baterako deitu zioten eta han 27 urtez aritu zen lanean.

## Zintak

### URN-017

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-01-28
- **Iraupena:** 109 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Alkorta Agirrezabala, Jon - Elexpuru, Juan Martin

## Pasarteak

### 1. Mutilak trajez eta ondo orraztuta jaiegunetan

- **Erref:** URN-017/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

#### Laburpena:

<p>Sei anai-arrebatatik neska bakarra zen. Zapatak garbitu, alkandorak lisatu eta abar, lan handia zuten emakumeek orduan. Jaietan oso dotore irteten ziren mutilak, ez orain bezala; traje dotoreaz eta ondo orraztuta. Trajeak ondo zaintzen ziren. Pena ematen dio arropa botatzeak.</p>

#### Transkripzioa

- Aizu, lan dexente izango zenun etxe hartan ez?

- Bai, klaro, eske gaiñea ordun zan denboa haitan aizu, dena zapatak garbittu ta galtzak plantxatu ta geo ordun, trajiakin ateatzen zan jendia eta trajiak onak gaiñea jaitan-ta. Eta bakizu, galtzak plantxatu in behar zian ta alkandorak'e jaitakuak eta zapatak eta denak garbittu ta gaiñea denboa hartan hari irudittu zitzen emakumiak in bihar giñula. Oain ez, oain gizasemiak itten dittue, bere zapatak-eta garbittu, baiño ordun dena emakumiak itten geniyen. Ordun, hola zan biximodua eta geo jai atxaldian ateatzen zian ta denak ondo jantzita. Oain ikusten dittutenian esaten pentsatzen eoten naiz, Jesus! Jendea nola ateatzen dan oain ta ordun nola ateatzen zian.

- Akordatzen al zea mutillai, mutil gazteen janzkera?

- Hoixe goatzen naizela! Guapo asko juten zien.

- Orrazkeraz-eta.

- Bai, bai. Orraztuta. Orraztuta, ez oain bezela, zea ijittuak baiño okerro ibiltzen dia oain. Eta orraztuta, rayakin alde batea ta geo beste anai zaharrena hua, harek atzea uste det orrazten zula.

- Trajea zen nolakuak izaten zian?

- Traje onak, traje onak, aizu. Oain ikusten dittuzu miñistrua holako trajek. Bueno, hoik akaso zeauak izango dittue, baiño izaten zien trajiak zeak iñak, sastriak iñak izaten zian. Ta traji hoi kontu in behar zitzaien, bueno! Ni amak bialdu izandu nau nere anaia gaztenak andregaia Zaldibikoa zun eta egundalako tormenta izandu zan han ta ni Donostitik etorri nitzan ta guardasolakin billa, bestela trajia bustitzen bazitzaion eta ordubeteko atrasuakin etorri zan ta hortxe eendu nitzan.

- Haren zain?

- Bai klaro, trajia ez bustitzeko.

- Aman preokupaziyua.

- Bai. Ordun erropai asko beiratzen geniyon guk ta horreatik oain asko kostatzen zagu arropa botatzia. Nei pena ematen dit erropa botatzia, zeatikan ordun hala hainbeste kontu itten geniyon arropai ta jaitakua gaiñea.

## 2. Aberatsak bezala janzten zen Kontxita jaiegunetan

- **Erref:** URN-017/003
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:04:08. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

### Laburpena:

<p>Gurasoek aginduta, aberatsak bezala janzten zen Kontxita jaiegunetan. Berokia, setazko soinekoa... Astean, berriz, normal. Prakarik eta horrelakorik ez, jakina. Galtzerdi sportekoak eta soineko mehe bat..., oso arin janzten zen orduan.</p>

### Transkripzioa

- Jaitakuak.

- Ta jaitan trajez eta astez?

- Astian korriente ibiltzen giñan. Baiño ni jaitan oso ondo jazten nitzan. Nik izeba banun, solteruak zian ta gutzako zian. Guk izandu dittugu bi ama ta bi aitta. Ta izeba horrek izaten zun gutzako beste, bueno, aberatsak bezala janzten nitzan ni jaitan. Ta nei ez zitzaaten gustatzen. Bakizu, nere launak beste zea batea janzten zian baiño. Ordun, esaten zuena in beharra zeon:

"Ez hoi jantzi behar dezu!". Ixilik hua jantzi.

- Deskribatuiazu, esaiazu nolako trajez zea?

- Ba abrigo elegantiak eta. Soiñekua're sedaskuak hemen, bolantiakin ta kapakin ta. Astian ez, astian ni korriente ibiltzen nitzan.

- Ya ta astian, bueno e pentsatzen det.

- Bueno astian, galtzik eta ez. Oain pentsatzen eoten naiz hoi. Diferentzi earra. Ordun ibiltzen giñan, galtzerdi esportekuak. Eta negun zapatillakin eskolan eta geo pues abrigua-eo izaten gendun, baiño geo soiñekua, ez zan oso lori haitakua're ez. Galtzik eta ez zan ematen ordun.

- A ze hotzak.

- Bai. Holaxe zen dena-ta.

### 3. Jolasak eta ohiturak

- **Erref:** URN-017/004

- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:05:22. **Bukatu:** 00:08:14

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

#### Laburpena:

<p>Kaniketan eta kurkuluxetan ibiltzen ziren eskolatik irtendakoan.

Kanpandorrera igotzen ere bai. Behin goian zeudela kanpaiak jotzen hasi ziren eta ikaratuta jaitsi ziren zaratarekin. Hildakoak ikustera joateko ohitura ere bazuten. Sokasaltoan, gerezi hezurak zuloan sartzen... orduko jolasetariko batzuk</p>

#### Transkripzioa

- Geo eskolatik atea ta kaniketan ibiltzen giñan. Ta kurkuluxakin'e bai. Kurkuluxakin ibiltzen giñan. Eta geo illunarrian pues etxea goiz jutun giñan. Aurrena, bueno, meriendatu itten giñun, aurrena meriendatzea jutun giñan ta meriendatu eta kaniketan ibiltzen giñan jostatzen. Ta geo kanpantorrera ´re jutun giñan honea, eliza irikiya eoten zan eta jutun giñan koadrilla bat eta han kanpantorreko leihotik behian geatzen zienai "o" itten geniyon. Geo gu jetsi ta geo haik jun. Ta gu [...]. Ta eun batian, klaro gu jun giñan koadrilla bat eta nik hemen laun haundiya nun aldamenen, aldamenen bizi zana-ta, jun giñan hara ta hor hasi orduba jotzen. Ta ze soiñu, bueno uste det airian etorri giñala behera.

- Ia ikaratuta?

- Bai, bai. Ta geo eskolatik atea ta beste kostunbre bat izeten zan, norbait hiltzen bazan, ume guztik hua ikustea eskolatik ateata. Bai. Holako aittona hil da, holako amona hil da ta etxea. Ta askotan parre igual itten giñun ta geo. Kostunbria izaten zan. Eskolan irakurritzen zan, esaten zan: "Bueno, oain holako aittona hil da eo halako ez dakit zein hil da" ta eskolatik atea ta denak hara hua ikustea.

- Ta ze, ze izaten zen hua ikusi ta bueno.

- Hua ikusi, ikusi ta atera ta segi. Ikusi in bihar. Eta ordun gaiñea hildako hairi bula jartzen zizken hemen, etxian eoten zian ordun trajiakin jantzita ta. Hemen bula jartzen zizken. Batzutan geo "este" ur bedeinkatua izaten zan, zeakin "esto" Jesus! Nola esaten da? Oain ez det ahaztuko, erramubakin, erramubakin ta erramubakin igual botatzen giñezkan hildakoai ta "tan felices".

- Ta ze zea izaten zen hoi, erramuakin ze seiñale in behar izaten zan?

- Gurutziana.

- Hoi ume-umetatikan daukazue?  
- Bai, ordun umek hola izaten zan.  
- Baiño atxalde pasa juten ziñaten, hola bueno kuadrillan edo aittai ta amak esaten zizuen: "Zuaz harea jun behar deu?"  
- Ez, meriendatuta kanpoa ateatzen giñan ta geo hemen Postan eo bazeon emakume bat burutik ondo ez zeona eta hua terrazan eoten ziñan. Ta geo ume guztik hara juten giñan. Geo errita ematen ziguen etxian ta harek esaten zittun: "Hoy, pues yo no sé que no sé cuantos, es igual igual pero distinto distinto" ta gu parren. Eta holaxko, holaxe dibertitzen giñan; aurrena kurkuluxetan, geo "este" gereziyak zeakin ibiltzen giñan hexurrakin'e eta sokasaltuan.

#### 4. Txingoka, kurkuluxetan, sokasaltoan, gerezi hezurak zuloan sartzen

- **Erref:** URN-017/005
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:10:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

##### Laburpena:

<p>Txingoka eta kurkuluxetan nola jolasten zen azaltzen du. Gerezi hezurak zuloan sartzen ere jolasten zuten. Sokasaltoan asko ibiltzen ziren baina ez du ongi oroitzen kantua.</p>

##### Transkripzioa

- Eta geo zean'e bai, "esto" oain ez dakit nola esaten dian, markatzen giñun klerionakin ta saltokan'e bai.  
- Txingoka.  
- Txingoka, bai, txingoka.  
- Ta ze jolas izaten zen hoi? Ze kuadro eo ze margotzen zen?  
- Kuadroak jartzen zittuen ta bostekoa igual ta geo zeatu in behar zian, geo aldamenen itten zizken ta aber denak ondo itten giñun hankie sartu behar rayan.  
- Ta zerbaitte botatzen zen kuadro bakoitzean?  
- Ez, ez zan botatzen ez. Txingoka ibiltzen giñan. Eta geo gaiñekoan bakizu.  
- Kurkuluxakin ta, kurkuluxakin ze jolas mota izaten zan?  
- Kurkuluxak izaten zian, bueno bat aidian bota bihar zendun ta bestia jira alde batea. Eta bigarrena ´re bota ta beste alde jira. Askotan batzuk pintatuak izaten zittuen. Ordun, kurkuluxak bueno! Estimazio haundiya izaten zuen.  
- Zer da kurkuluxa?  
- Kurkuluxa arkumian, ze esango dizut ba nik? Gordetzeko asmoa nun ba, baiño. Halako hexur bat izaten zan, halako hexur bat arkumiak izaten duna eta harek izaten dittu, pues lau bueltan lau: bat lisua, bestea zeagoa, "esto" rayakin ta eta [...] in bihar zian. Bat bota, hola botatzen zun ta ikusi beak jira. Ta bestiak bota ta jira.  
- Zenbat laun ibiltzen ziñaten kurkuluxetan?  
- Bueno, pues igual hiru-lau launak, hola. Hiru-lau-o. Askotan bi're igual ta.  
- Kantaikan eo bazun han, han.  
- Ez zan kantaik, ez. Kantaik ez zan izaten.  
- Ta gereziyakin, berriz, nola jolasten gerezi-hezurakin?

- Gereziyakin xulo batian sartu behar izaten gendun. Hola jarri, eskubakin eta txulo batian sartu hua. Eta ordun, gereziya asko izaten zan ta hemen Zimotoyuan ta asko izaten zien hexurak ta haik bildu ta geo, txulo batian sartu.

- Ya, ta zeñek irabazten zun?

- Gehienak sartzen zittunak-o.

- Gaiñekoan, sokasaltuan ta?

- Bai, sokasaltuan ibiltzen giñan, bai. Sokasaltuan asko, sokasaltuan.

- Ta kantaik eo?

- Bueno, sokasaltun kantaik izaten giñun, nola zen, "la niña del barquero". Ahaztu zat. "La niña bonita se llama" ez dakit "unos cuantos" ta geo hola ibiltzen zan hua. Ta geo bestela ibiltzen giñen saltoka ta gue zeako zian, gue jostailluk eta gue gauzak.

## 5. Doña Francisca erdalduna, maistra ona

- **Erref:** URN-017/006
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

### Laburpena:

<p>Maistra oso ona izan zuten, doñe Francisca Perez. Erdalduna. Bi familia zeuden bakarrik Urnietan erdaldunak. Berehala ikasi zuten euskaraz haien seme-alabek, dena euskaraz egiten zelako.</p>

### Transkripzioa

- Baiño eskolan, ordun sei urtekin hasten giñan eta geo maestra kastellana gendun. Baiño maestra, bueno oso ona. Eta guk ez genekin erderaz, ez dakit nola ikasi genun letzen'e. Dena harek erderaz esaten ziun eta geo nolabaitte ikasi gendun. Oain pentsatzen eoten naiz, "nola ikasi gendun erderaz?". Ta rekreora ateatzen giñan eta oso, maistra oso ona gendun guk.

- Akordatzan zea izenaz?

- Geo... Doña Francisca. Apellidoa ez naiz goatzen zer zun. Doña Francisca Perez.

- Nungoa ote zan kastellana hoi?

- Ez dakit nungoa zan. Ez dakit, ez dakit nungoa zan.

- Euskeraz eakusten zuen eskolaik ba al zen hemen?

- Ez. Geo hemen, bi famili eo etorri zian. Batzuk Madriltik eta bestiak alabesak zian. Oseake Madrilko hoik Renfeko billetiak eta ematen zittuna zan eta honea destinatu zuen, ta bazian bost-o bazittun umiak ta beste alabako hoik'e erderaz ez zekiyeen, eo euskeraz ez zekiyeen denak. Baiño guk nola ez baigenkin euskeraz, erderaz, gu bezelaxe oso ederki ikasi zuen. Beste erremedioik ez zitzaieen geatzen. Oaindikan'e ikusten dittut. Mutillak bat'e ez. Neskak ez zuen ikasten hainbeste, baiño mutillak bai. Ordun, erderaz-ta iñor ez.

- Nola zun izena eskola, zu ibili ziñan eskolak? Hemen zu ibili ziñan eskola harek nola zun izena? Nongo eskolan ibili ziñen?

- Hemengo aldemeneko hontan ibili nitzan ni hamabi urte arte.

## 6. Donostian ikasten gose denboran

- **Erref:** URN-017/007
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

### Laburpena:

<p>San Bartolome Ikastetxean bi urte egin zituen Kontxitak. Aurreneko urtean "externa" egon zen; izeba baten etxean bizi zen. Bigarrenean "mediopensionista"; etxetik joaten zen eta han bazkaltzen zuen. Errazionamendu garaia zen, oso momentu txarra.</p>

### Transkripzioa

- Eta geo beste bi urtian ibili nitzan, Donostin San Bartolomeko kolejiyuan. Bai.

- Ze eskola zan hura?

- "Colegio de las hijas de María".

- Monjena-edo?

- Monjena bai. Oain "por ejemplo, la presentación, presentación de las hijas de María" San Bartolomen goien.

- Han izaten al zan uniforme ta...?

- Bai, uniformiak ta ibiltzen giñan. Ta geo gaiñea, gerra denboako zea zan hua, ya gerra. Izeba nun Donostin bizi zana ta haren etxen, bueno ez, aurreneko urten haren etxen eendu nitzan ta geo bigarrenengan hemendik juten nitzan. Aurrenguan eendu nitzan "externa" eta bigarrenengan "media pensionista". "O sea que media pensionista" zan han bazkaldu ta meriendatu. Ordun etxetik, hemen etxetik juten nitzan.

- Ta eskolan bertan eukitzen zenuen jangela ta lotako lekua ta dena?

- Ba, bueno "medio pensionista" neola bai. Ordun han ematen ziguen. Baiño, ordun razionamentua zeon ta Jesus! Ogiya're holako pixkat ematen ziguen eta iñor faltatzen baldin bazun, iñor etortzen ez bazan, haren ogik hartzen aitzen giñan. "Hau ez da etorri"-ta. Nik behin eo hartu non, baiño jendiak askotan hartu itten zuen. Klaro oso zan, oso momentu txarra zan ordun. Razionamentua zeon dena ta ogiya're gutxi-ta.

## 7. Izebaren pentsioan Donostian

- **Erref:** URN-017/008
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:14:08. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

### Laburpena:

<p>Oso gustuko du Donostia. Gogoan du amak pezeta bat ematen ziola ogia erosteko. Errekaduan egin bai baina beste lanik ez zuen egiten izebaren ostatuan. Jende inportantea egoten zen.</p>

### Transkripzioa

- Kontxita, hemendikan, Urnietatikan Donostirako salto hura edo, hamabi-hamalau urte bittarteko zea hura, ze diferentzia harrapatu zenun?
- Bueno, diferentzia, diferentzia haundiya. Baiño gustoa eoten nitzan Donostin. Donosti asko gustatzen zitzaten. Oain'e bai e. Nik Donostiya pues izeban etxian ta izebak zun pentsiyua, "Pensión Arrieta, este" Plaza de Bilbaon. Eta han aurrenetikan ezin [...] eendu nitzan e. Aurrenetik, baiño geo ya pixkat jarri nitzan ta nola pasa nun kursoa bakarrik urtebete eta geo, etxetik juten nitzan, etxetikan, hemendik. Goatzen naiz amak nola pezta bat ematen ziten "pan" zea eosteko "pan", ogiya zea zan "esto" bollo bat. "Pan Bimbo" bezelako holako bollo bat eosten nun eguardin, errekreuan jateko.
- Pezta bat balio zun?
- Pezta bat ordun baliyo zun.
- Han pensio hartan izebakin eo eendu ziñan lanian, lanian ta hola bai?
- Bai, bueno. Ez, ez, ez. Nik lanik ez nun itten han. "Aunque sea" enkargun batzuk bai bialtzen niñuen: "Aizu, zoaz horrea, estanco hua" ta geo klientiak beak'e bai bialtzen zizkiten "a por sello, a por lo que sea" ta geo errealuak-eta itten zizkinen. Zeatikan jende gaiñea bastante inportantia eoten zan pensio hartan. Ta jende Valentzikoak-eta bazian, bueno "este" sekulako terrenuak zezkenak zeanak, naranjenak ta klaro ordun haik zeuden refujiatuta bezela hemen. Valentzikoak ta geo beste hoi izandu zan Jose Antonio. Hua berriz zea zan Francon hurrungua, Francon ingurun ibiltzen zana. Hua're han eendu zan pensio hartan ta bai, jendia bastante inportantia eoten zan pensio hartan. "Pensión Arrieta" zan, gerra denboan.
- Haintzako enkarguk itten ta?
- Bai. "Oye chavala, pues oye, me vas a ir al estanco y me traes un sello?". Ta beste batek ez dakit ze ta geo naranjak ematen zizkidan ta geo, behin, nere, bai nere kunpleañotan ta han eokitu nitzan ta erregalo asko in zizkiten. Nik gaiñekon han lanik ez. Eskolak [...] ematen giñun, deberian in ta bakizu.
- Hemendikan hauntza nola, nola juten ziñan? Hemendik jun-etorri itten [...]?
- Goizian juten nitzan zortzi t'erditako trenian eta geo, klaro atsaldian etortzen nitzan, ez dakit seitan-o. Hola ateatzen giñan ta meriendatu ta geo trenian etortzen nitzan. Trenian jun ta trenian etorri.

## 8. Diziplina gogorra mojetan

- **Erref:** URN-017/009
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:18:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

### Laburpena:

<p>Mojak ez zuten ilea solte erabiltzen uzten, "zaldi-buztana" ipini behar zen. Uniformea ere ezinbestekoa zen. Diziplina gogorra.</p>

### Transkripzioa

- Eskola politta izango zu, ordun zuk?

- Bueno, ba.

- Ze ikasi zenittun?

- Batxillerra hasi nun baiño ez dakit hiru urte eo ze ikasi nittun. Ordungo batxillerra're diferentia zan. Eta ordun gaiñea Jesus! Komentuko hartan ta "buf". Nik klaro, melena ibiltzen nun nik luzia ta denak hala ibiltzen gendun. Ta han jarri behar izaten gendun "cola de caballo". Mojak ez zun uzten han hola illia sueltuan. Eta behin uniformeik be juten baziñan, bueno "una bronca". Ta askotan bueno esaten zun amak, gaur unifomia garbittu in bihar dizut, ez zala lehortu o bakizu oain bezelako adelantuik ez zeon ta "de calle" igual juten ziñan ta hori ez zitzaien moja hairi gustatzen. Baiño giñan errespetua giñekan guk mojai, bueno. Oaindik goatzen zazkit San Bartolomeko eskaillerak haik-eta. Geo elizan hizketan eoten bagiña, "castigadas". Gu ez baigiñan ixilik eoten. Eliza oso kapilla ederra zan. Ta nere ume denboako kontuk hola izandu zian-ta.

- Han'e erderaz?

- Bai, dena erderaz zan. Euskeraz esaten dizut, pues etxeko euskera dakigu guk, besteik ez dakigu.

## 9. Seme-alabak erdaraz ikastea gurasoen afana

- **Erref:** URN-017/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:18:02. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

### Laburpena:

<p>Orduko gurasoen afana seme-alabak erdaraz ikastea zen, beharrezkoa ikusten baitzuten. Ez daki nola ikasi zuen, familian inork ez zekien eta. Asko kostatzen zaio euskara irakurtzea.</p>

### Transkripzioa

- Gurasuak hemenguak al zenittun?

- Bai, bueno ama hemengua zan, Urnietakua eta nere aitta zan Zubietakua. Baiño euskaldunak ta gure etxian dena euskeraz hitz eiten zan anaiakin ta denakin. Ta, eta orduko gurasuan orgulloa izaten zan erderaz ikastekua. "Hoi erderaz!", klaro erderaz inportantia zan ikastia ta hamar urtekin guk ez genekin erderaz ezerre. Maistrakin pixkat eo eskolan-o ikasten bagendun, baiño harek dena erderaz zeatzen ziun. Ta nik oain pentsatzen det, hizkuntza nola ikasi, nola "esto" eskribitzen ta letzen ta nolabait ikasi gendun ba! Gure etxian erderaz ez iñork'e. Aittak eta amak eta semien artian ta dena.

- Baiño ikasten da.

- Hala ikasi, pixkanaka-pixkanaka ikasi gendun. Ta oain erderai gehio ematen diou euskerai baiño. Nei etortzen bazat bat euskeraz idatziya ta erderaz, nik erderaz. Asko kostatzen zat nei, zea letzia oain erderaz. Oaingo batu honekin. Euskeraz. Eske Aiurri bertan eoten naiz. Launak dittut hor eskribitzen dittuenak: "aizu faborez e aber gure euskeraz pixkat zeatzen zuen e, zuek jartzen dittuzuen hitz hoik ez dakit rusuak eo alemanak eo zer dian" esaten diyet. Pixkat guria, ta ez dit kasuik itten. Ta geo klaro esaten dezu "gutxi gorabehera hola izango da ba!". Diferentia da ta gure euskera beste euskera klase bat.

## 10. Anaiekin hika, baina gurasoei berorika

- **Erref:** URN-017/011
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:19:42. **Bukatu:** 00:20:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Anaiekin hika egiten du. Bestela, bietara, baina hika kasik gehiago. Aitari eta amari, berriz, berorika egin izan die. Apaizari ere bai.</p>

#### Transkripzioa

- Lehenoz artian 'e pentsatzen det, zuka hitz eitten zenuen edo hika edo?
- Anaiakin ta hika, anaiakin hika.
- Ta zuek eskolan hola nesken artian ta?
- Nesken artian-ta hika eo batzuekin hika ta bestek zuka ta "aizan, hau" ta hika kasik. Beste batzuekin zuka. Eta aittai ta amai berro, hairi, berriz, esaten giñen "beorrek, beorrek". "Zu" ta ez, "beorrek". Ta hemen apaiza haidi're bai "beorrek".

## 11. Lehengo erlijioa barreneraino sartuta

- **Erref:** URN-017/012
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:16. **Bukatu:** 00:21:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

### Laburpena:

<p>Apaiza elizakoekin pasatzen zenean, lurrean belaunikatzen ziren, harri artea egokituta ere. Mezetara igandero eta hileko lehen ostiraletan. Lehengo erlijioa du barreneraino sartuta.</p>

#### Transkripzioa

- Ta geo goatzen naiz ni hemen apaizak ordun, "este" norbait hiltzen bazuen elizakuak eamaten zizken, komuniyoa eamaten zuen tapatuta ta guk jolasten ai giñanen harri tartian belauniko jartzen giñan plazan, hua pasa arte. Ta holakoxeko errespetun bizittu giñan, ordun.
- Ze gauza e.
- Bai. Ta jaiero eliza, bueno eta "primer viernes"ak-eta ez dakit ze "primer viernes" klase itten giñuzen zeatikan ez giñen ixiltzen. Oain itten ditugu egitazkok. Ordun, bueno "primer viernes"etan beti ta jaiero're mezeta beti eta orduko relijiyua dakau barrena sartuta ta gu gaiñea ttikittan ohieatzekoan ta oraziyuak-eta. Komuniyua itteko're kreduak eta salbiak-eta bagiñizkin ta oain aitzen diet, ez dakittela gurutze santuarena itten oaingo umiak ta komuniyoa itten duela eta klaro, oain ez due eakusi're itten ta, dena kanbiatu in baita gauza guziya.

## 12. Gurutzea kendu eskolatik errepublika denboran

- **Erref:** URN-017/013
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:21:26. **Bukatu:** 00:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

### Laburpena:

Oso gogoan du Errepublika denboran gizon batzuk etorri zirela eskolara gurutzea kentzera. Maistra negarrez hasi zen eta eurek ez zekiten zergatik. Beste ezertan ez zen nabaritu errepublikaren eragina. "El temor de Dios es el principio de la sabiduría" letreroa egoten zen eskolan.

### Transkripzioa

- Bai. Ta geo ni goatzen naiz.
- Dotriña ikastea.
- Hemen republika jarri zan ta nik zenbat urte izango nittun ba? zortzi urte eo holakon bat. Eta klaro elizan denetan eoten zan gurutzia, maistran pupitrian gaiñian gurutzia. Eta goatzen naiz, gizon batzuk sartu ziala ta gure maistra nearrez. Ta guk ez gendun ezer entenditzen, gizon haik zerta etorri zian, ze itten zuen ta ordun etorri zian gurutzia kentzea, hoi gogoan dakat. Ta gizon haik aurrian dazkat, ta maistra nearrez ta guk esaten giñun: "ze pasatzen da? Zer du?" ta "ez dakit". Ez genekin zerta etorri zian. Hoi zan Republikako denboan. Ta geo gurutzia kendu zuen, geo, bueno geo.
- Beste deusetan nabarittu zen, oraziyotan eta holako zeatan?
- Ez, ez, ez. Hemen elizan bat'e ez zan sartu. Gurutzia kendu bai, hoik in zittuen. Baiño hemen ez, hor kanpuan-ta esaten omen zittuela, baiño hemen ez zuen besteik in. Eskolako gurutzia bakit kendu zittuela ta maistra nearrez ikusten gendula ta guk ez genekila zer zun. Ta gizonak ez genekila zeatik etorri zian ta zer zian ta.
- Ta banderak eta hola kendu al zian?
- Geo esaten zun, bueno hoik geokuak zian, "esto, el temor de Dios es el principio de la sabiduría". Hoi eoten zan letreroa eskolan.

## 13. Amak arropak garbitu soldaduei

- **Erref:** URN-017/014
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:22:52. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

### Laburpena:

Gerra denboran, kanta asko ikasi zituzten; <em>Cara al Sol</em>, esaterako. Amak arropak garbitzen zizkien soldadu erreketeei. Aurretik, <em>Frente Popular</em> rekoak Urnietako komentuan egon ziren.

### Transkripzioa

- Ta geo, klaro Jose Antonion zeak eta. Bueno nik gerra denboran kanta asko ikusi, ikasi nittun. Oain'e kantatzen dittut batzutan, "Cara al Sol" ta.

"Las niñas de este pueblo, eulo, se han, no, se han quedado solos, solo". Ahaztu zaizkit.

- Erderaz izango zan?

- Erderaz dana kantatzen giñun ta soldaduk eta klaro, denak gure etxe ingurun'e eendu zian. Ordun, Hernani hartu bihar zuen, gure etxe ingurun eendu zian. Nik ordun hamar urte nittun eta denak kantatu itten zuen ta gure etxian askotan sartzen zian ta "bua". Eta hain kanta guztik ikasi giñin.

- Zerta sartzen zien zuen etxea?

- Gure etxian, pues gure amak erropak igual garbitzen zizkien soldaduri eta gure etxea goatzen nola gure amak eukitzen zittun erropak. Ta esaten zun: "Hoik'e aman semiak dia ba ta". Ni goatzen naiz nola erropak garbitzen zizken. Denei ez, batzui, asko eoten zian-ta. Gerra denboa hola zan.

- Ze bandotakoai garbittuko zizkaten? Zeiñen aldekoai garbittuko zizkaten erropak?

- Ordun, soldaduk zian reketiak. Bueno, bueno Francon aldekoak. Beste aldekuak, beste aldekuak eendu zian hemen "de Frente Popular"-o. Hoik, hemen komentu haundi bat zan hemen eta komentu hortan, bueno fraille denak alde in bihar izandu zuen, eta komentu hortan eendu zian Frente Popularrekuak o "los rojos" esaten ziyenak ordun.

## 14. Baserritarra hil, espioitzat hartuta

- **Erref:** URN-017/015
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:25:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

### Laburpena:

<p>Behin, Kontxita anaiarekin batera joan zen komentura kuxkuxean, eta ikusi zuen nola sakristiako arropak eta gauzak botatzen eta apurtzen ziharduten Frente Popularreko soldaduek. Espioia zelakoan hil zuten baserritarraren kasua.</p>

### Transkripzioa

- Eta haik, ni goatzen naiz nere anai batekin, nik hamar urte ta eskutik nola eaman niñun. Ta komentu hartan nola ai zian danak harrika botatzen, Sankristiko jantzi guztik, platera guztik txikitzen. Ta denak ai zian, zeatikan ia Andoaiñea bazen beste reke soldaduk. Baiño soldaduk zian denak, bakizu obligatutakuak. Nere anaia're hemezortzi urtekin jun zan eta dena txikitzen. Eta ni, nere anaia eskutikan biyok nola egondu giñan. "¡Esto fuera!" esaten zun, "¡Esto fuera! y ¡Esto fuera!". Eta geo, klaro hemendik alde in zuen. Ta geo, gizon bat hemen, basarriko gizon bat bazan Belauntzan, "esto" Urbanetakoa eta basarritarra. Eta basarritar hoi [...] txekorra saldu omen zun. Eta jun zan Lasarte kobotatzea eta Frente Popularrekuak eo dalakuak bidian topatu ta ispiya zala iruittu ta hil in zuen. Ta hemen atarin eukitzen zan, horko komentun ta ume guztik bueltan hari beida. Ta gero enterratu zan baatza batian. Ta geo eaman zuen baatza hortatikan kanposantua, baiño baatzan enterratu zuen. Baiño hua nere ama ta izeba ta gu, gure billa. Umiak eaman itten zittuela ta gu ez giñala agiri ta noizbaitte billatu giñuen-ta.

## 15. Kanoikadak neska bat hil baserri batean

- **Erref:** URN-017/016
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:25:54. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

### Laburpena:

<p>Oialume baserrira joan ziren ihesi Urnieta bonbardatuko zuten beldurrez. Baserri batean kanoikada sartu zen: etxeko alaba bat hil eta beste bat zauritu zuen.</p>

#### Transkripzioa

- Geo guk alde in bihar izandu gendun, zeatikan hoik geo Santa Barbara jun zian, "este" hemengo zea hoik Frente Popularreko hoik ta Urnieta bonbateatu in behar zuela. Eta goatzen naiz, izebak in ta denakin nola jun giñen erropak eta hartu ahal genun bezela ta hemen baserri batian eendu giñan, Oialumen-eo, pasa arte. Ta geo bonbardeatu zuen basarri batea, hor basarri bat 'sagardotegia' esaten diyoena. Hara sartu zan kaiñonazo bat eta han alaba bat hil zuen. Ta bestea geatu zan ya begia galduta ta ni goatzen naiz han basarrin gaudela, amak nola ama nola pasa zan bere alaba horrekin ta soldaduk nola eaman zuen kamilla batian. Hoi denak goatzen zaizkit.

## 16. Herriko jendea lapurretan gerra denboran

- **Erref:** URN-017/018
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:28:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

### Laburpena:

<p>Gerrari ihesi joanda baserrian bizi zirenean, sagastira joaten ziren umeak jolasean eta etxean arduran egoen ziren. Gerra pasatu eta etxera itzuli zirenean, konturatu ziren gauza asko harrapatu zirela; harizko maindireak, esaterako. Herrikoak ziren lapurrak; handik laster, berarentzat gordeta zuten eraztuna elizan ikusi zuten beste baten eskuan.</p>

#### Transkripzioa

- Bai ta geo gu umiak giñan eta klaro, ni goatzen naiz aizu, argiya're kasik oso argi ttiki-ttiki batekin ohian nola sartzen giñan basarri hartan. Zeatikan bestela, Santa Barbaratikan basarri hura zeon eta ez ikusteatik. Ta geo umiak izaten giñan gu [...], basarri horren aurrian saastiya zeon ta gu hara joaten giñan saarrak hartzea ta. Etxian sartuta ezin eon ta ezin kontenitu ibiltzen zian: "Etorri honea!" Ez zuen iñorrek ikusteik nahi handik. Ez dakit nola ez zuen basarriya, zeatu, bonbardeatu. Ta geo halango bolara pasa zanian, etorri giñan ya. Hoik Donosti aldea eo jun zian ta geo tropak Andoaindik honea sartu zian eta geo tropa hoik sartu zianian, ordun etorri giñan geure etxea. Eta goatzen naiz, gure izebak eta taberna ta zuen ordun ta desbalijatu zizkien bastante gauza harrapatu zizkien, baiño

herriko jendiak e! Soldaduk ez, herriko jendiak. Bai.

- Gosia, gerra.

- Bai, gosia, bai, bai. Gosia baiño maindiriak eta harizko maindiriak-eta izaten zian ordun-ta. Ta geo eraztun bat goatzen zat. Nere izebak eta nere amak eraztun bat eosi zittuen ta nere izebak gordian zakan eraztun hoi, nik pixkat hazitzeako eta hua eaman in zien. Ta gure izeba horrek elizan baten bati ikusi hua, eraztun hua. Ta klaro, gure aittona zana hain zan fededuna ta hain zan gizona zan aittona: "ez kasoik in, utzi bere kontzientziak". Ta ordun holaxe zian.

## 17. Errazionamendua eta estraperloa

- **Erref:** URN-017/019
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

<p>Ditxosozko errazionamendua etorri zen gero. Ematen zituzten garbantzuk hogeita lau ordu eduki behar izaten ziren beratsen. Patata beharrean boniatoa ematen zuten. Patata estraperloan ekartzen zuten Nafarroatik. Oliaa hogeiauro (100 pezeta) ordaintzen zen, oso garesti. Gipuzkoako gobernadorea Bar&ocaron; de Benasque deitzen zen baina "Ladr&ocaron; de Benasque" esaten zioten, eta Semana Grande-ri "Semana de hambre".</p>

### Transkripzioa

- Geo ditxosozko razionamendua etorri zan, "que si un cuarto de litro, que si doscientos gramos de azúcar". Geo izaten zian beste patata bezelako zea, bueno haik ez zeon jateik. Geo garbantzuk ematen zittuen eta gure ama zanak eukitzen zittun beratsen hoita lau ordun igual. Ta geo eguarti guztin egosten. Ta hala're harri koskorak bezelakoak zian. Nik ez dakit nundik ekartzen zittuen garbantzuk haik. Ta patatak bezelakuak zian boniato. Baiño guk patata. Naparroa ta juten zan gure osoba ta aitta ta juten zian ta handikan patata-ta ekartzen zizkiuen estraperloan e! Harrapatu izan bazittuen.

- Estraperlo asko izango zen?

- Bueno, ixilikan juten zian Naparroa ta geo oliyua're bueno oliyua're oso gutxi ematen zuen ta hogeiauro paatzen gendun ordun e, "hace setenta y tantos años", diru asko zan. Ni goatzen naiz, gure amak azkeneko ttantoiño nola paderan botatzen aitzen zan. Oain gaiñea, oliyuakin ez giñun prejitzen gauzak ordun.

- Bestelako oliyuan ordezkoiak-eta izango zen sebua ta holako.

- Bai, oliyua batzutan txarra ematen zuen razionamentun. Eta geo "gobernadores" bat zan, "Varón de Benasque" eta jarri ziyuen izena "ladrón de Benasque". Eta geo "Semana Grande"n Donostin esaten "Semana Grande no, Semana de hambre". Ta ordungo kontuk holakoxek zian.

## 18. Lehengo zapatak

- **Erref:** URN-017/022

- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

#### Laburpena:

<p>Anaien zapatak garbitzen lan asko egin izan du. Jaiegunetan erabiltzen zituzten; astegunean, berriz, abarketak.</p>

#### Transkripzioa

- Ta ordun, aizu, zapata mordoxka jartzen zizkiten amak. Hemen jartzen zizkiten zea trapua ta-o; "benga zapatak garbitzen!". Jaitakuak izaten zian e. Astian ibiltzen giñun pues ebittan ta hola gomazko zapata batzuk eo. Bazan hemen 'kinkilleroa' esaten ziyena. Hari eosten giñezkan ebittako ta gaiñeakoan alpargatakin.

- Ta kinkillero hoi zer zan?

- Kinkillerua zan zapatak eta gauz hoik saltzen zittunak eta geo feritan ibiltzen zan. Ta hari eosten giñezkan horroko zapata gomazko batzuk ebittako. Eta astian apretak, "cero" patzen giñun "cero noventa", baiño "euros no" e "céntimos". Ta beti zeakin, hemen baatzan barberua zan eta geo apretak itten aitzen zana. Ta klaro astian apretakin. Zapatak-eta jaiyian.

## 19. Saskigile asko Urnietan

- **Erref:** URN-017/023
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

#### Laburpena:

Lau saskigile ezagutu ditu Kontxitak Urnietan. Osaba "xesterua" zuen. Bigarren aita bezala zen. Tolosan saltzen zituzten saskiak. Oso ona omen zen bere lanbidean. Kontxita sarri joan zen Tolosara saskiak kobratzera.

## 20. Urnietako lehen telefonoa eta irratia

- **Erref:** URN-017/024
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:36:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

#### Laburpena:

Aita telefonoetako langilea zen. Lokutorio txiki bat zegoela uste du herrian, baina ez omen zen beste telefonorik. Auzoko batek irratia ekarri zuenean ume guztiak hara joaten ziren entzutera, txoratuta eta harriduraz beteta.

## 21. Azkorteko Santokristoaren historia eta eguna

- **Erref:** URN-017/026
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:37:54. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

### Laburpena:

<p>Aitona oso gizon zuzena zen. Azkorteko Santokristoaren historia kontatzen du. Urnietako ermitak. Maiatzaren 3an izaten da Azkorteko Santokristoaren eguna. Txikitan beti joaten ziren hara egun horretan eta orduko oroitzapenak fresko ditu.</p>

## 22. Baltsean ibiliz gero, infernura

- **Erref:** URN-017/029
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

### Laburpena:

Igandetean Hernanira oinez joaten hasi ziren hamasei urte betetzeaz bat. Itzuli trenez, dirurik bazuten. Dantzari egiten zuten baina ez mutilekin, kongregaziotik botako zituzten beldurrez. Sermoietan esaten zieten baltsean ibili eta momentu hartan hilez gero, infernura zoazela zuzen. Beldurrezko erlijioa zen hura. Kamiseta eta jertse manga luzedunak erabiltzen zituzten. Orduan dena infernua zen. Asko joan ziren moja garai hartan, horrela infernutik libratuko zirelakoan. Konfesatzera joan zireneko pasadizoa.

## 23. Lutoa eta tindatutako manta

- **Erref:** URN-017/030
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:45:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

### Laburpena:

Etxeko norbait hiltzen zenean, urtebetez arropa beltza eramaten zen. Eta urtea konplitzean sei hilabetez txuri-beltza. Tindatu egiten ziren normalean arropak. Gerra denboran manta bat tindatu eta berokia egin zioten.

## 24. Arropak josten eta "pasaratzen"

- **Erref:** URN-017/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:47:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena:**

Gerra ostean Donostian erosten zuten oihala eta jostunak josten zizkieten arropak herrian. Berak galtzak-eta "pasaratzen" ikasi zuen, puskatutakoa konpontzen, alegia.

**25. Maindirerik gabe lo**

- **Erref:** URN-017/032
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena:**

Maindireen bi saiheitsak josi eta gastatutakoa bazterrean ipintzen zen. Maindire gabe ere egiten zuen lo zenbaitek. Eta puskaz osatutako maindireak ere baziren.

**26. Jolas kantak: "al pasar la barca", "Mariana goiko"**

- **Erref:** URN-017/034
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:49:02. **Bukatu:** 00:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

<p>Sokasaltoko kantua erdaraz: Al pasar la barca dijo el barquero". Euskarazkoa: "Mariana goiko/ zer bihar den beheko...".</p>

**27. Gurdiari jarraika gustura**

- **Erref:** URN-017/035
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:50:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

<p>Gurdiarekin baserritarrak pasatzen zirenean haren atzetik joaten ziren umeak gustura.</p>

**28. Sakamantekas**

- **Erref:** URN-017/036
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:50:14. **Bukatu:** 00:51:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

**Laburpena:**

Eskale eta ijito asko ibiltzen zen orduan. Eskale bat herrira heltzen zenean Sakamantekas etorri zen zurrumurrua zabaltzen zen eta ume guztiak beldurtuta etxera.

**29. Donostian taberna ipini familiak**

- **Erref:** URN-017/037
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:51:45. **Bukatu:** 00:53:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

**Laburpena:**

Angulak sarri jaten ziren etxean. Anaiak janariarekin egiten zizkion tranpak. Familiak taberna-jatetxea jarri zuen Donostian eta han bizi izan ziren lau-bost urtez.

**30. Angulak eta bisigua nahiko merke**

- **Erref:** URN-017/039
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:55:08. **Bukatu:** 00:57:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

Orduan angulak orain bokartak bezain merke zeuden. Noiznahi erosten zituzten. Bisigua ere asko izaten zen eta sarri jaten zuten. Eguberrietako afaritan jaten zutena. Konpotaren osagaiak. Turroia ere jaten zuten. Hori kolean, baserri askotako jatordua askoz ere pobreagoa baitzen. Kontxitak-eta bi merienda jaten zituzten, bata etxean eta bestea osabarenean.

**31. Bi mutil fusilatu gerra denboran**

- **Erref:** URN-017/040
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:57:51. **Bukatu:** 00:59:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Soldaduak etorri zirenean, haien kankak ikasi zituzten. Udan etortzen ziren familia oneko bi mutil fusilatu egin zituzten gerra denboran, Santa Barbaran.

Anaia bat 18 urterekin joan zen gerrara; azkenekoak izan ziren. <em>La Quinta del Biber&acute;n</em> esaten zitzaien.

### 32. Elizarekin sartzea, Errepublikaren hankasartzea

- **Erref:** URN-017/041
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:59:52. **Bukatu:** 01:02:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

#### Laburpena:

Oblatoen komentua erretzen ikusi zuten baserritik. Komentu handia zen. Elizak erre, apaizak hil eta horrelakoak egin zituen errepublikak. Bera txikia zen errepublika denboran eta ez da ezertaz oroitzen baina entzuna du errepublika ez balitz elizarekin sartu oraindik jarraituko zuela.

### 33. "Bar Ongi Etorri" "Bar" soila bihurtu zenekoa

- **Erref:** URN-017/042
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:02:16. **Bukatu:** 01:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Euskara eta politika

#### Laburpena:

<p>Osaba-izebek taberna zuten, "Bar Ongi Etorri" izena, eta gerra igaro zenean Francozaleek "Ongi Etorri" ezabatu zuten euskarazkoa zelako. "Bar" geratu zen soilik. Eurei ez zieten euskaraz egitea galarazten, ez zekiten erdararik eta.</p>

#### Transkripzioa

-Gerra denboan'e geo nee izebak eta osabak zuen taberna, jartzen zun "Bar Ongi Etorri". Eta, klaro, Francon denboan "Ongi Etorri" borratzen ai zien ta "Bar" utzi zuen. Ta bi gizon, eta nik izebai galdetzen emen nion: "Ze ai dia gizon hoik?", eta "Zikiña zeon eta pintatzen" izebak esaten ziten. Eta "Ongi Etorri" kendu ein ziyuen euskerazkua zelako. Osea ke "Bar" solo.

-Eta ametittu egin bihar?

-A, biharko.

-Zer esango zenien.

-Ez zeon han ezer esateik. Ta euskeraz hitz eitia, bueno, gui ez ziuten galarazten euskeraz hitz eiten baiño [...] askotan aittu nin nola galaazten zuen euskeraz hitz eittia ta.

-Eskola maistra kastillanak jartzia nahiko galaraztia da.

-Bueno. Gui ez ziun euskeraz hitzeitten galeazten, nola hitz egin bihar gendun?, ez ginikin erderaz eta.

### 34. Eskolako bihurrikeriak eta zigorrak

- **Erref:** URN-017/043
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:03:20. **Bukatu:** 01:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

#### Laburpena:

Anaia bihurria zen eta sarri egoten zen eskolan zigortuta. Etxean ez zuten ezer esaten, matrailekoa zutelako bestela. Egiten zituzten bihurrikeriak.

### 35. "Marizulo" ikuskizuna Luis Mari ilobak-eta prestatua

- **Erref:** URN-017/045
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:07:00. **Bukatu:** 01:08:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

#### Laburpena:

Luis Mari Zaldia ilobak Urnietako bide, harri eta putzu-zulo guztiak ezagutzen omen ditu. Liburuak eta mapak argitaratu ditu. Arrakasta handiko "Marizulo" ikuskizuna prestatu zuen beste batzuekin batera.

### 36. Ikasturte bukaerako ibilidia Donostiara

- **Erref:** URN-017/047
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:11:35. **Bukatu:** 01:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

#### Laburpena:

Gogoan du poltsikoa beroarekin nola joan zen behin ikasturte bukaerako bidaiara Donostiara. Zaldikoetan ibili, San Telmo Museoa ikusi..., egun handia izan zen hura.

### 37. Laboreak ikasten arratsaldeetan

- **Erref:** URN-017/048
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:13:00. **Bukatu:** 01:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena:**

Eskolan "laboreak" egiten zituzten arratsaldetan. Puntillak, tapeteak eta abar egiten zituzten. Oso irakasle ona zuten.

**38. Santa Leokadiaren erlikia bisitatzera umeak hartuta**

- **Erref:** URN-017/049
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:13:50. **Bukatu:** 01:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

**Laburpena:**

Santa Leokadiaren erlikia bisitatzera etortzen ziren leku askotatik familiak umeak hartuta, umeen osasunarentzako ona zela-eta. Hondarribia, Pasaia, Irun... Trenez etorri eta elizara joaten ziren. Gero batzuk herrian gelditzen ziren bazkaltzen eta pilota partiduak ikusten.

**Transkripzioa**

-San Migelaz aparte ze festa gehiago?

-Zerakuak, Azkorteak.

-Leokadia, Santa Leokadia esan diazu lehen. Ze reliko izaten dia hor?

-Santa Leokadian relikoia. Eta ordun izaten zan umiak ez gaizkitzeko edo, umiak osasuna izateko, umiak guzik hartuta etortzen zien. Uste det Hondarrabi guziya etortzen zala, Pasaia, Irun, Andoain... Baiño hemen korreo bat izaten zan, korreua esaten ziyen, tren bat. Eta hua geratzen zan hemen hamarrak laurden gutxitan hola. Pasatzen zun ordulaurden bat bai hemen jendia jetxi ta jetxi ta jetxi. Eta geo hamarretan edo izaten zan meza nagusiya eta danak meza nagusira [umi haikin] Eta geo, klaro, batzuk goizo etortzen bazian, goatzen naiz ni gue izeban etxian eta nola gosaltzen zuen. Ta gero bazkaldu ere itten zuen hor bertan. Ta geo pelota-partiduk izaten zien ordun kontsejupian. Hoi bai, goatzen naiz pelota partiduk nola izaten zien eta. Geo atsaldian ya musika.

**39. Ezkondu gabe haurdun gelditzea, delitu ikaragarria**

- **Erref:** URN-017/051
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:15:28. **Bukatu:** 01:18:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

**Laburpena:**

<p>Delitu ikaragarria zen neska ezkongabea haurdun gelditzea. Herritik alde egin behar izaten zuten, etxekoek bidalita askotan. Zenbaitek neskame egin ohi zuen denboraldi bat eta gizentzen zirenean Villabonako Fraisorora joaten ziren umea izatera. Ama aurrerakoia zuen Kontxitik. Lagunen artean bakarra

izan zen amaren bidez hilekoaren berri jakin zuena. Sasoi hartan ama ezkongabea izatea azkena zen, eta solterak ere ("neskazaharrak") oso gaizki ikusita zeuden.</p>

#### 40. Gizonak matxista hutsak

- **Erref:** URN-017/052
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 01:18:42. **Bukatu:** 01:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

##### Laburpena:

Gizonak oso matxistak ziren, aitarengandik hasita. Emakumea hutsaren hurrengo izan da.

#### 41. Plantxak eta garbigailuak

- **Erref:** URN-017/053
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:19:10. **Bukatu:** 01:20:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

##### Laburpena:

<p>Hiru plantxa mota ezagutu ditu: txapa gainean berotzen zena, ikatzarekikoa eta elektrikoa. Lehenengo garbigailuek, berriz, garbitu bakarrik egiten zuten; aklatatu eskuz egin behar izaten zen. Zarata handia ateratzen zuten. Lehenago utziko luke autoa garbigailua baino.</p>

#### 42. Kontxitaren amona oinez Donostiara buruan saskia hartuta

- **Erref:** URN-017/056
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:24:28. **Bukatu:** 01:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

##### Laburpena:

Herriko baten autobusean joaten ziren baserritarrak Donostiara salerosketak egitera. Kontxitaren amona oinez joaten omen zen buruan saskia zuela.

#### 43. Neska-mutil kontuak eta gurasoen ardurak

- **Erref:** URN-017/059
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 01:28:30. **Bukatu:** 01:32:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena:**

Zoriontsuak ziren txikitan. Hernanira joan lagunarekin, eta barre eta barre, primeran pasatzen zuten. Neska-taldea batzuetan mutilei ihesi eta beste batzuetan jarraika ibiltzen zen Hernanin eta Donostian. Gurasoak beti arduratan. Trenak matxura izan zueneko larrialdiak. Anaia-eta Bilbora joan ziren behin, eta berak ere joan nahi zuela esan zion amari. "Hoiek gizasemeak dira" erantzuna.

**44. Emakumeak erretzea, oso gaizki ikusitako gauza**

- **Erref:** URN-017/060
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:32:26. **Bukatu:** 01:34:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

Emakume beraneante bat fulanatzat hartzen zuten zigarroa erretzen zuelako. Ezkondu gabe elkarrekin bizitzea, berriz, bekatu barkaezina zen. Bera egunero joaten da elizara baina horregatik ez du pertsona hobetzat bere burua. Elizara joaten direnen artean ere jende txarra omen dago. Pertsona gezurtiak eta lapurrak ez ditu jasaten.

**45. "Ezin duenari laguntzera joatea da ebanjelioa"**

- **Erref:** URN-017/062
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 01:35:35. **Bukatu:** 01:36:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Baloreak galdu egin omen dira. Dena dela, jende on asko dago orain ere, baita elizara joaten ez direnen artean ere. Kartzeletara bisitak egitera edo hirugarren mundura laguntzera doazenen jarrera goraipatzen du: "Ezin duenari laguntzera joatea da ebanjelioa"

**46. Jaiotza ikusten eta turroia jaten Donostian**

- **Erref:** URN-017/064
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:36:36. **Bukatu:** 01:38:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

**Laburpena:**

Behin hiru anai-arrebak Donostiara joan ziren jaiotza ibiltaria ikustera, paga onarekin. Jaiotza ikusita gero, diru guztia turroitan gastatu, banku baten eseri eta dena jan zuten. Urnietan lagunei kontatu zietenean sortutako inbidia.

**47. Ikastolari eskerrak eutsi zaio euskarari**

- **Erref:** URN-017/066
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:38:40. **Bukatu:** 01:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Ikastolari eskerrak eutsi zaio euskarari, Kontxitarren iritziz. Bere seme-alabei erdaraz egiten dieten ama baserritarren kasua.

**48. Erregenetako opariak**

- **Erref:** URN-017/068
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:40:00. **Bukatu:** 01:41:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

**Laburpena:**

Erregenetako opariak zeintzuk izaten ziren kontatzen du. Behin portzelanazko panpina erregalatu zioten. Anaiak puskatu egin zion eta egun guztia negarrez pasatu zuen. Oso pozik jartzen ziren erregaluekin. Familia pobretako umeek ez zuten ia ezer izaten.

**49. Beltzaran egoteko modak azala hondatu**

- **Erref:** URN-017/070
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:41:42. **Bukatu:** 01:42:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea

**Laburpena:**

Amaren denboran aberatsak guardasolarekin ibiltzen ziren larrua zuri izateko; gero beltzaran egoteko moda etorri zen, larruazalaren kalterako. Azala guri eta zuri izateko formulak.

**50. Sendabideak**

- **Erref:** URN-017/072
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:43:58. **Bukatu:** 01:45:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

### Laburpena:

Baratxuria ipintzen zuten iltzea hankan sartzen zitzaientean desinfektantea delako. Beste ukendu beltz bat ere erabiltzen zuten hainbat gaitzetarako. Kurandero batek ekartzen zieten.

## 51. Gerra zibilari izarrei begiratuta igarri zion sasimedikua

- **Erref:** URN-017/073
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:45:23. **Bukatu:** 01:46:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

### Laburpena:

Ukenduak ekarri ohi zizkien sasimedikuak izarrei begiratu, eta gauza onik ez zetorrela iragarri zuen. Laster sortu zen gerra zibila. "Allapurko Ttikia" esaten zioten. Oso kurandero ona ei zen.

### Transkripzioa

-Akordatzen zera kurandero haren izena, edo nungua zan edo?  
-Hua Allaflorkua, "de Allaflor". Ze izena zun harek? Julien ez baiño ez dakit, Allaflorkua zan. Eta gue amai esaten zion beti, gue amak Angeles izena zun, "Angelex, hemen gauz onik ez dator". Ta "Ze ba" ta. "Egunero izarra bat ikusten det hor eta harek esaten dit, ez dator hemen gauz onik" "Baiño ze etorri bihar du ba?" gue amak esaten zion. Ta baakizu zer anuntziatu zun? Gerra zatorrela.  
-Gerra aurretik esaten zun hori?  
-Bai, beti esaten zun. "Hemen badator ikaragarriya!" Gue amak esaten zun "Ze ikaragarri etorri bihar du ba, ze esaten du gizon honek?" Ta geo gerra etorri zan. Allapurko Ttikiya esaten zion ordun, izena ez dakit zer zun.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-03-02*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com